

BALOREZKO PROPOSAMENAK

Atal honetan, guk identifikatutako gabeziari aurre egiteko eskainiko dugun zerbitzua aurkeztu eta zehatz-mehatz deskribatuko dugu.

Aspaldi sortutako “Edurne-zuri”, “txanogorritxo” eta estiloko beste hainbat ipuin famatu belaunaldiz belaunaldi pasatzen joan dira eta denok ezagutzen ditugu oso ohikoak direlako. Hala ere, tankera horretako liburu gehienek puntu matxista eta misogino bat dute, eta, gainera, emakumea mendeko posizio batean kokatzen duten estereotipoez josita daude. Hori dela eta, berdintasuna bultzatuko duten ipuinen falta sumatu dugu, eta hori konpondu nahian, liburu bilduma bat sortuko dugu. Bilduma hori, betiko ipuin batzuek osaturik egongo da, baina liburu guztiak eraldaturik egongo dira, beti ere ikuspuntu feminista batetik.

Gure bildumaren bidez, txikitatik berdintasuna sustatzea erraztuko da, ipuin tradizionalei alternatiba bat emanez. Horrela, umeei emakumea indartuko duten beste balore batzuk irakatsiko zaizkie adin gazte batetik, beti ere, ipuin tradizionalak nolabait ere mantenduz.

Gure helburua betetzeko, ikastetxeetan jarri dugu arreta berezia, izan ere, haur hezkuntzan bereziki ipuinek izugarriko garrantzia dute. Gure proiektua material didaktiko bihurtuz, irakaskuntza zentroetan, gure liburuen lanketak egitea da gure xedea, istorio tradizional atzeratuak ordezkatzuz.

Bildumak 7 ipuin izango ditu hasteko, eta aurrerago poliki poliki handitzen joango gara gehiago sartuz.

Liburuak hauek izango dira:

- TXANOGORRITXO
- EDURNE ZURI ETA ZAZPI IPOTXAK
- LOTI EDERRA
- OLENTZERO
- RAPUNZEL
- SIRENATXOA
- ERRAUSKINE



Orokorrean zazpi ipuin hauek jorratzen dituen aspektuak oso antzekoak edota berdinak direla esan dezakegu, horregatik gure eraldaketa nahitaezkoa iruditzen zaigu. Aipatutako aspektu hauetariko bat, adibidez, salbatzailearen papera egiten duena istorio guztietan gizona dela da. Hau da, emakumea erreskatatzen duena Beti gizona izaten da eta hor matxismoa islatzen da, horregatik gizon horiek gabe emakumeak hainbat gauza egiteko gai direla erakutsi nahi dugu. Horrekin lotuta sexistak direlaz ere ohartu gara, “bikote tradizionalak” bakarrik azaltzen direlako istorioetan, neska bat eta mutil batez osaturikoak hain zuzen ere, eta hurrei hainbat generoetako bikoteak daudela erakustea beharrezkoa iruditzen zaigu, ondoren beraiek nahi dutena hautatzeko beldurrik izan ez dezaten. Azkenik, aspektu arrazista dagoela ere iruditzen zaigu, beraz, guk sortutako istorio hauek edozein lurraldetan kokatuko ditugu, bai garatuak eta baita garapen bidean daudenak ere, hurrek ingurumen denak ezagutu ahal izateko eta protagonistak edozein arrazetakoak izango dira.

Euskara sustatzeko ere aprobeztatuko dugu proiektua, baina Espainia osoan zabaltzeko intentzioa ere dugunez, elebiduna izango da bilduma, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira idatzita liburuak.

Liburuaren estiloari dagokionez, sinpleak izatea nahi dugu. Tapa gogorra izango dute erresistenteagoak izateko, eta paper satinatua erabiliko dugu, aurreko arrazoi berarengatik.

Ilustrazioak liburuaren ezkerreko orrialdean egongo dira, eta eskubiko aldean, testua fondo zuriarekin.

Letra handia, garbia eta ulerterraza izatea nahi dugu, eta horretarako, “COMING SOON” tipografiaz baliatuko gara, kolore beltzean. Bestalde, letra guztiak larriz egongo dira, ikasleak irakurtzen hasten direnean, letra larriarekin hasten direlako.

Bildumako liburu guztiek diseinu eta tamaina (21cm x 21cm) bera izango dute. Ilustrazio guztiak ilustratzaile berak egingo ditu estilo berean.

Aurreko guztia horrela izanik gogo handiz jardungo gara lanean proiektua ondo atera dadin eta gure helburua bete dadin.

